# OSTADAR S.K.T




# URTEURRENA

# EDITORIALA

**1983 - 2013**

Kirol tradizioa daukan herri batean bizi gara, zioen  Ostadarrek 10.urteurrenarekin batera argitaratu zuen liburuko sarrerak. Liburu honetan Iñigo Ayestaran kazetariak herriko kirol historia jaso zuen, eta benetan itzela da. Besteak beste  xakea, arrauna, atletismoa, auto karrerak, saskibaloia, eskubaloia, boxeoa, bolo eta toka, zaldi karrerak, arte-futbola, futbola, golfa, halterofilia, herri-kirolak, igeriketa, arte martzialak, mendia, pilota, mahai-tenisa, errugbia,  tenisa, txirrindularitza eta boleibola egiteko aukera egon da herrian.

Hori guztia kontutan hartzen badugu Ostadarrek herriko kirol historiari ekarpen xumea egin dio. Baina, hogeita hamar urte hauetan Ostadarretik burutu diren kirol proiektuak gauzatu ahal izateko izugarrizko lana egin dute eta egiten ari dira askok. Esfortzu horri esker, egun, ondorengo atalak elkarrekin doaz Ostadarren izenean:  tenis eskola, errugbiko taldea, zikloturisten taldea, atletismo taldea, mendiko atala, bolo eta tokako atala, aretofutbola, futbol federatua eta futbol eskola. Ezin ahaztu antolatzen ditugun kros herrikoia eta kros txikia. Kros eguna herrian festa eguna bilakatu da eta zentzu guztietan herrikoia benetan. Auzolanean burutzen den ekimena da, bertan 200 herritarrek parte hartzen dute antolakuntzan. Txalogarria guztiek eskaintzen  duten laguntza.

Beste hainbat urtetan bizirik dagoen herri batean kirola sustatu nahi dugu. Mugimenduan dagoen herri bateko partaide izan nahi dugu. Horretarako denok indarrak batu behar ditugu noranzko berdinean aritzeko, eta guztion lanak zentzua izan dezan.

Urte askotan!

# KIROLARI ONENA



*Argazkia: Txintxarri*

Aurten kirolari lasartear asko genituen saritzeko, baina bakarra aukeratu behar zenez Asier Sagasti omenduko dugu, bai judon bai sanbon primeran dabilelako azken urteotan. Sanbon Euskadiko txapelketetan urrezko domina eta Espainiako txapelketetan urrezko eta brontzezko dominak lortu ditu. Judon ondorengo dominak eskuratu ditu: bai Gipuzkoakoan, bai Euskadiko txapelketetan (sub23 eta senior) urrezko eta zilarrezko domina; Espainiako senior mailako txapelketarako sailkapeneko txapelketan brontzezko domina; Angelun (sub23) brontzezko domina; Marsellan taldekako txapelketan(sub23) brontzezko domina eta azkenik Kopa Tagoyan parte hartzea, lehenengo saion lesionatu eta utzi behar izan zuen.



# ARETO FUTBOLA



*Argazkia: Txintxarri*

## Revancha entre el Buenetxea y el Txindoki

Después de una larga temporada hemos llegado a las finales. Este año será una final con ansia de revancha, ya que los finalistas vuelven a encontrarse en la gran final. El Txindoki intentará quitarle la ikurriña al Buene. Esperamos que la final Buenetxea - Txindoki sea emocionante y sobre todo que se juegue con deportividad. Pero antes, jugarán la final de consolación el ganador de la semifinal Anatasoi Ileapaindegia - Trumoi contra el ganador de Albañilería Vertical-Ilargi.

Esta temporada habéis jugado la 30ª edición del torneo. Ha sido la liga con menos equipos de la historia de este torneo local, 14 equipos, pero a su vez la más competitiva, la más bonita, podemos decir que la de las sorpresas.
Los seguidores de este torneo han podido disfrutar de una liga preciosa. Ha sido una liga muy peleada y con sorpresas de última hora en las clasificaciones y cruces. Y en cuanto a los participantes han tenido la suerte de poder jugar bastantes partidos en la cancha verde de Michelin.

Hasta aquí todo ha sido muy bonito. Pero cuando llega la fase final y pasamos a jugar en el “poli”… todos nos volvemos locos... Y ahí es cuando empiezan los problemas. La organización siempre tiene la culpa de todo, de las horas de cancha, de los arbitrajes… En fin, un mar de pegas que durante todo el año apenas existen.

Desde estas líneas queremos dar las gracias a los que habéis estado arbitrando fin de semana tras fin de semana. Todos sabemos que no es una labor ni fácil, ni agradecida. Por ello gracias. Y enhorabuena a todos los equipos participantes por su temporada realizada y esperemos que hoy sábado disfrutemos una vez más de éste día de finales tan especial para todos.

# AUZOLAN SARIA

Aurten Ostadarrek Lasarte-Oriako Saharar Herriaren Lagunak elkartea omentzen du Auzolan Sariarekin. Elkarte honek 2001.urtetik ari da lanean Sahararen alde, besteak beste, Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetara elikagaiak eta produktuak bidaliz “Piztu Itxaropena” Euskal Karabanaren bitartez; 8-12 urte bitarteko neska-mutil sahararrak Oporrak Bakean programaren barnean ekartzen dituzte harrerako familia bat zain dutela eta gure herrian bizi diren sahararrei laguntza eskainiz.





# TXIRRINDU-LARITZA

## PORRA

Txirrindularitzako Porra martxan jarri dugu beste urte batez eta eskerrak eman nahi dizkizuegu beste behin gurekin jokatzeagatik. Giroa bihar amaituko da beraz, gutxi falta da porrako irabazlea ezagutzeko. Sari banaketa hurrengo ostiralean, maiatzaren 24ean, taberna irabazlean egingo dugu, arratsaldeko 19:00etan. Gogoratu sailkapenak gure webgunean aurki ditzakezuela.

## BOLOAK ETA TOKA



*Argazkia: Txintxarri*

Toka eta boloetako atala lanean jarraitzen dugu bi kirol hauek gure herrian sustatzeko asmoz. Egun, Gipuzkoako txapelketako jaurtiketetan parte hartzen ari gara eta azken urteotan bezala, San Pedro jaietako botaldia antolatuko dugu. Atal honetako ateak, gainontzekoenak bezala, edonorentzat irekita daude. Ez da trebetasun handirik behar, gogoak eta ilusioa besterik ez. Beraz, badakizu, animatzen bazara Michelingo bolatokian ikusiko dugu elkar.

### OTRO AÑO MÁS ALEGRANDO LOS ARCENES

Este año parece que la “peña” está más animada. En las salidas del domingo se está formando un bonito grupo, un mini-pelotón, y eso a pesar de que como casi todos los años habrá que esperar hasta Mayo para poder disfrutar de temperaturas más agradables que vayan permitiendo aligerar la vestimenta. Este año está resultando húmedo y siempre con la carretera seca es más fácil aventurarse a la ruta.

En el grupo el ambiente es muy bueno y siempre hay alguien dispuesto a hac ernos reír. Entre semana también está siendo habitual cruzarse en la carretera con algún que otro txirrindulari con los colores del club. De esta forma cada uno a su manera, aparte de practicar un deporte que te “engancha”, nos vamos preparando para las salidas programadas para este año, sobre todo para la de Arriondas en Asturias, que sin duda va a ser la más numerosa; donde probablemente habrá dos recorridos opcionales. Así como Los Puertos de la Ribagorza, con sus 200 km., en Graus y la Quebrantahuesos que este año nos adelantamos y la haremos por libre, por nuestra cuenta, desde Castiello de Jaca.

Como siempre, por supuesto, están las puertas abiertas para todo aquel que quiera incorporarse a esta sección de cicloturismo del club. Estamos deseando que corra savia nueva para disfrutar juntos de este maravilloso deporte.



*Argazkia: Txema Valles*

# TENISA



## TENIS ESKOLA

Aurtengo denboraldia bukatzear dago eta kontentu egoteko arrazoiak ditugula esan dezakegu: batetik, zortzi eta hamasei urte bitarteko hogeita hamasei tenislari ilusioz eta seriotasunez ahalegindu direlako tenisaren sekretuak bereganatzen; bestetik, ikasturte honetan lortu ditugun aurrerapenak aipagarriak direlako.

Honengatik guztiarengatik eta ohiturei eutsiz, ekainean denboraldiari amaiera emango diogu Tenis Jaiarekin. Bertan, tenis familiako kide guztiak elkartuko gara azken raketazoak jotzeko. Gogoratu, lehen urratsak eman ala sakondu nahi duenarentzat Tenis Eskolako ateak zabalik daudela!



# MENDIA

Elkarteko mendizaleak bakoitza bere kabuz aritu arren, azken urtean hainbat gauza burutu dituzte elkarrekin, besteak beste: kide batzuk Laponia, Groenlandia eta Islandiara egindako bidaiei buruzko bi hitzaldi; Jon Mujikak “autorreskatea eskaladan” ikastaroa eskaini zuen; urteroko martxa luzea egin zuten Nafarroako Zubietatik Lasartera eta euskararen maratoian Benedika mendixkan buzoia jarri eta proba konbinatua (tirolina, korrika, patinak) antolatu zuten. Urtezahar egunean lehen aldiz txistorrada egin dute Buruntzako ermitan. Alex Tetuanek dio berak ohitura bihurtu dadin saiatuko dela.



# PALA



Definitivamente cerramos la persiana en la organización del Torneo de Pala. Han sido 17 años de torneo, se dice fácil. Un torneo local abierto a gente del exterior. Por Michelín han pasado muchos de los mejores jugadores guipuzcoanos, ha sido una ilusión tenerles entre nosotros. Pero, todo llega a su fín, y el torneo también. En el Club depositaremos el emblema realizado por Alejandro Romo en cuya base quedarán reflejados todos los campeones de este torneo. En cualquier caso, las puertas del Club quedan abiertas para todos aquellos que les gusta el deporte del frontón y apoyaremos cualquier tipo de iniciativa. Mila esker.



# KROSA




Maiatzean gaude eta jada krosa noiz izango den galdetu digute bat baino gehiagok. Urriko azken igandea egun erreferente bihurtu da askorentzat eta egia da goizetik gauera festa giroa dagoela kaleetan. Horrek motibatzen gaitu beste edizio berri bat antolatzeko.

Beti bezala, laguntzaile guztiak eskertu nahi ditugu eta barkatu baten bat ahazten bazaigu: DYA, Jalgune, Erketz D.T., Danok-Kide, AEK, Ttakun, Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri ikastola, Alboka Abesbatza, Lasarte-Oriako Udala eta Zubieta Herri Batzarra.

Batzuk txipak eta dortsalak banatzen, besteak bidegurutzeak zaintzen, besteak frutak banatzen... Guztira 200 herritar inguru aritu zarete auzolanean. Badakizue zuen laguntzarik gabe ezingo genukeela festa egun hau antolatu.

Dagoeneko, XVIII. edizioa eta Txikien XIII.a antolatzen hasi gara. Urriaren 26an, berriz ere, denak elkar ikusiko dugulakoan gaude.








# ATLETISMOA

Neguko karrerak eta giro ustela atzera uztearekin batera gustura atera gara lehen eguzki printzekin korri egitera. Batzuk asfaltoan segitzen dugun bitartean besteak mendian gora doaz.

Entrenatzeaz gain hurrengo karreren egutegia benetan tentagarria da eta guztietan izango ditugu kideak: Aizkorriko mendi maratoian, Leitzako Euskal Herronkan, Beasaingo 100 miliak eta G2Handiak mendi lasterketetan; asfaltoan Donostiako maratoi erdian, Hernaniko Azeri Bilan…

Guzti horrekin batera igandero egiten ditugun irteerak dauzkazu aukeran. Eman egurra!!!














# SASKI BALOIA



Denboraldiari amaiera iritsi zaio. “Aurtengoan aurreikuspen guztiak gainditu ditugu”. Norberak esanda gaizki badago ere, urtean zehar egindako ekintzei merezitako etekina ateratzea lortu diogu.
Proiektu berri batekin hasi gara Ostadarren, saskibaloiaren inguruan, eta gure neskek erreakzio ona eduki dute aurtengo denboraldian. Momentu oso onak izan dira eta ezin izango nuke, bakarrarekin geratu. Garrantzitsuena errendimendu mailara igotzea izan da, Gipuzkoako talde honen aurka jolastuz.
Etorkizunari begira, espero dugu proiektu honek aurrera jarraitzea eta kirol honi ahalik eta etekin handiena ateratzea Lasarte-Oriako gazteekin.
Jokalariei orain arte moduan lanean jarraitzeko esango nieke, hori baita bidea arrakasta lortzeko.
Orain atseden pixka bat datorkigu eta pilak kargatzeko ordua da… baina lo hartu gabe, gainean dugu 2013-14 denboraldia hainbat ekintza erakargarri eta desafio ate joka izango ditugulako.
Jende guztiari eskerrak eman, eta batez ere jokalariei proiektu honetan parte hartzeagatik.



# RUGBY TALDEA

## Un nuevo impulso al rugby en el pueblo

Con las obras realizadas en el terreno de campo de Michelin y la compra por parte del ayuntamiento de material -palos, banderines, almacén para el material-, creemos que ha sido un paso importante para poder difundir nuestro deporte en el pueblo, de una manera digna. Queremos agradecer al equipo de gobierno, y en especial al patronato de deportes, por la buena labor realizada de esta obra tan importante para nosotros. Muchas gracias a todos.

Por otra parte, nos estamos dando cuenta, que el nivel deportivo de nuestros jugadores a raíz de estas obras está creciendo de una manera sorprendente, en especial el equipo cadete y el infantil escolar, que están luchando de tú a tú con los equipos históricos de nuestra provincia, con mucha más tradición y medios que nosotros. No nos olvidamos de las categorías benjamín y alevín, que están entrenando muy bien. Aunque a veces no nos acompañen los resultados deportivos, para nosotros es secundario, lo que de verdad nos satisface es, por un lado, el compromiso tanto de jugadores como de padres, y por otro, la formación humana que creemos que está calando en ellos. Que esa formación la sepan aplicar en su vida cotidiana en casa con su familia, y en la ikastola con sus compañeros y profesores. Eso es lo que desde siempre nos enseñaron a nosotros, que a través de este deporte sepan canalizar valores, respeto, compañerismo y juego limpio por encima de todo.

Agradecer a los padres su labor de apoyo al club y pedirles disculpas por si alguna vez hemos cometido errores que no dudamos que habrán sido muchos.

Hacemos un llamamiento a todos los escolares - de 8 a 14 años- y a chavales de 15 años en adelante a que acudan a probar este deporte, que seguro les gustará y disfrutarán. Los entrenamientos de edad escolar son los domingos a las 9:00 y los federados entrenan los miércoles a las 18:30 y los viernes a las 19:30.

Rugby escuela de la vida

# FUTBOL ESKOLA





















*Lehenengo Infantila*



*Lehenengo Jubenila*



*Lehenengo Kadetea*



*Lehenengo Erregionala*



*Alebina*



*Kadete liga vasca*

# FUTBOLA



Iruditan ikusten duzuenez futboleko familia etengabe hazten ari da eta hauetako jokalari asko alebinetatik hazten ikusi ditugu. Aurten 11 taldek jokatu dute Ostadarreko kamisetarekin eta ez ditugu ahaztuko Futbol Eskolakoak, guztira 390 jokalari inguru. Michelingo instalazioak egunero kirolariz gainezka ikustean harro sentitzen gara. Baina, ez jada sartzen ez garelako, baizik eta, bakoitzak bere helburuak dituen arren, denek bat egiten dutelako helburu batean, denek gustuko duten kirola beraien herrian egiteko aukera dutelako. Ilusioz ekin genion denboraldia aurki bukatuko da, eta guztiek amaiera on bat izan dezaten espero dugu.



*Ohorezko dibisioa*



*Ohorezko Infantila*



*Ohorezko Jubenila*



*Infantil txikia*



*Nesken erregionala*

# EGITARAUA

**2013 - V - 18 udal kiroldegian**



17:00 KONTSOLAZIO FINALA semifinaletako irabazleen artean jokatuko dute.

Anatasoi ileapaindegia - Trumoi
Albañileria Vertical - Ilargi

17:45 JALGUNE - TALDE MIXTOA

18:15 Omenaldia
KIROLARI ONENA: JON SAGASTI
AUZOLAN SARIA: SAHARA HERRIAREN LAGUNAK

18:30 FINALA
Txindoki - Buenetxea

19:30 SARI BANAKETA

**- GES ASEGURUAK**
**- LARRAÑAGA HARATEGIA**
**- ZAPA REPARACIONES DE CALZADO**
**- LAGUNAK ELEKTRIZITATEA**
**- BALERDI HARATEGIA**
**- REPARACIONES ARRUPE**
**- COPI LASARTE**
**- DISCO BURGER TATI´S**
**- LUISCAR AUTOBUSAK**
**- ETXEZARRETA HARATEGIA**
**- KIMA**
**- I.URRUZOLA**
**- HIRU ALDETA**
**- M.BERASATEGI KAFEAK**
**- ASESORIA BIRMINGHAM**
**- ABEND**
**- INSAUSTI**
**- BOSTINTA**

Jarraitu ezazu zure porra gure web-gunean
**www.ostadarskt.org**

**OSTADAR SAIARRE KIROL TALDEAK**
eskerrak eman nahi dizkie Grafikas ORVYri,
TXINTXARRI aldizkariari eta TXEMA VALLESi
eskainitako laguntzagatik.